

ERREREFUXIATUAK



**FAMILIA GROAREN BILA
HERRITIK KANPO**



Bigarren Hezkuntza

3 - 4

Animatzailearen Gida

Aurkibidea

○ Aurkezpena	3
○ Gaia aztertzen hasita	5-7
○ Proiektua: Solidaritatea Sudaneko Hegoaldearekin	8-9
○ 1. Jarduera	10-11
○ 1. Jarduera (Laneko Fitxa)	12-13
○ 2. Jarduera	14-15
○ 2. Jarduera (Laneko Fitxa)	16-17
○ 3. Jarduera	18-19
○ 3. Jarduera (Laneko Fitxa)	20
○ 4. Jarduera	21-22
○ Otoitza egiteko materiala	23-25
○ Sudan haustear dago Emakume errefuxiatuak arriskuan	26-27

Aurkezpena

PROCLADE YANAPAYn (Garapenerako Klaretar Sustapena) 10 urte daramatzagu Garapenerako Sentsibilizazio eta Hezkuntza materiala editatzen, ikastetxeei zuzenduta batez ere.

Aurten material berria prestatu dugu, **ERREFUXIATUEN** gaiaren inguruan. Zoritxarrez, oso gutxi agertzen da gai hori gure gizartean eta, beraz, nahikoa ahaztuta dago. Horregatik, gure kanpaina berria aurkeztu nahi dizuegu: **"ERREFUXIATUAK: Familia giroaren bila Herritik kanpo"**. Ekimen horren bidez, arrazoia edozein dela ere (politika, erlijioa...), etxetik ihes egin behar izan duten pertsonen bizimoduetara hurbildu nahi dugu. Ihesaldi horren arrazoiak eta ondorioak ezagutu nahi ditugu: haien larrupean jarri nahi dugu, zer sentitzen duten jakiteko; eta, nolabait, haiekin solidario izan nahi dugu.

Aurreko edizioetan bezala, Hegoaldeko ahotsak entzun ahal izango ditugu, zuzeneko lekukotzaren bidez. Pertsona horien bidez, leku jakin bateko oihartzunak iritsiko zaizkigu: Sudan. Izan ere, herrialde hori bukaerarik gabeko gerra batetik irten nahian dabil. Irakasle izateko prestakuntza emango duen proiektu batekin kolaboratu nahi dugu, Afrikako herrialde horretan haurrek hezkuntzarako eskubidea izan dezaten.

Eskuetan duzun Gida honek lanerako tresna izatea du helburu, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3 eta 4. mailako haurrek Kanpainan parte hartu dezaten. Hauxe da talde horiekin lantzeko aukeratu dugun gaia: **Ingurumen Errefuxiatuak**. Baliagarri izatea espero dugu.

Kanpainaren mezua zabaltzeko eta material osagarria eskaintzeko helburuarekin, blog bat ere ireki dugu:

<http://procladeyanapay0910.nireblog.com>

Sartu blogean eta idatzi zure gogoetak eta lanak (procladeyanapay@gmail.com).

Eskerrik asko zure lan solidario eta misiolariagatik.

PROCLADE YANAPAY
Hezkuntza eta Sentsibilizazio Saila

Gaia aztertzen hasita...



Hona hemen errefuxiatuaren definizioa: “zenbait arrazoi direla medio -arraza, erlijioa, nazionalitatea, gizarte-talde jakin bateko partaide izatea, iritzi politikoa-, jazarpena jasango duen beldurrez, bere jaioterritik kanpo dagoena eta, arrazoi horiek direla-eta, herrialde horren babespean jarri ezin duena edo nahi ez duena...”

Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1951eko Konbentzioa



Gaur egun milioika dira, egun batetik bestera, beren ondasunak bildu eta jaioterrira, etxea edota lagunak atzean utzi behar izan dituzten pertsonak: horiek dira errefuxiatuak eta desplazatuak. 2008ko datuen arabera, 42 milioi lagunek etxetik alde egin behar izan dute: horietatik 15,2 milioi *errefuxiatuak* dira, 26 milioi *herrialde barruan desplazatuak*, eta gainerakoak, hau da, 800.000 lagun inguru, *babesa* eskatu dutenak. Pertsona horietatik % 80 emakumeak eta haurrak dira. Egunero, 12.000 lagun inguru dira etxetik kanpora babes bila joan behar izaten dutenak, bai herrialde bereko beste leku batera, bai atzerrira.

Batzuek errefuxiatu izaera hartu behar izaten dute, beren giza eskubide bat edo batzuk zapalduta edo mehatxupean daudelako. Inork ez du errefuxiatu izan nahi, bere borondatez. Errefuxiatu izatea atzerritar izatea baino gehiago da. Atzerrian bizi behar dute, beti inoren menpe, oinarrizko beharrez, hau da, jana, arropa eta etxebizitza lortzeko.

Gehienek beren gobernuetara jo dezakete oinarrizko giza eskubideak eta osotasun fisikoa bermatu edo babestu beharra duten bakoitzean; errefuxiatuek, aldiz, ez dute halako aukerarik. 1951n Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioaren (ACNUR) figura sortu zen, estatuak kontziente izan daitezen eta errespetuz jokatu, errefuxiatuak eta asilo bila dabiltzanak babesteko duten betebeharrarekin, eta haien arazoak konpondu ditzaten.



**UNHCR
ACNUR**

La Agencia de la ONU para los Refugiados





ERREFUXIATUAK

Definizioak

<p>Errefuxiatuak</p>	<p>Zenbait arrazoi direla medio, hala nola arraza, erlijioa, nazionalitatea, gizarte-talde jakin bateko kide izatea edota iritzirik politiko jakin bat izatea, jazarpena jasateko arriskuan bizi diren pertsonak. Jaioterrik kanpo bizi dira eta ezin dute edo ez dute nahi herrialde horren babesik; edota nazionalitaterik izan ez eta jaioterrik kanpora egonik, ezin dute edo ez dute nahi beren jaioterrira itzuli.</p>
<p>Barneko desplazatuak</p>	<p>Pertsona horiek ohiko etxebizitza utzi edota ihes egin behar izan dute, arazo edo gatazka jakin batzuetatik urruntzeko: gatazka armatuak, indarkeria-egoera orokorra, giza eskubideen urraketa, edota katastrofe naturalak nahiz gizakiak eragindakoak. Betiere, nazioarte mailan ezagutzen den estatuko muga gainditu gabe.</p> <p>Barneko gatazka armatuak mundu osoan ugalduta dira eta Iparraldeko Gobernuak errefuxiatuen fluxua murrizteko egin dituzten ahaleginek nabarmen areagotu dute herrialde barneko desplazatu kopurua.</p>
<p>Herririk gabekoak</p>	<p>Nazionalitaterik gabeko pertsonak dira, Estatu batek ere ez dielako herritar izatera ematen. Pertsona bat egoera horretan aurkitu daiteke inoiz nazionalitaterik izan ez duelako (jaiotzean ez zitzaiolako halakorik atxiki), edota nazionalitatea galdu eta berririk eskuratu ez duelako. Herririk ez izatearen arrazoi nagusietako bat Estatua desagertzea izaten da; legeria eskas edo ahul baten ondorioa ere izan daiteke, edo baita ezkontzan edota jaioberrien erregistroan gertaturiko akatsen ondorioa ere.</p> <p>Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak oinarritzko giza-eskubide gisa jasotzen du naziotasuna; eta pertsona guztiek dute egoera horretaz gozatzeko eskubidea.</p>



FAMILIA giroaren bila HERRITIK kanpo



Errefuxiatuak / Etorkinak

Gero eta sarriago, etorkinek eta errefuxiatuek ibilbide eta garraibide berdinak erabiltzen dituzte. Hala ere, zeharo desberdinak dira; horregatik, Nazioarteko Zuzenbideak desberdin tratatzen ditu batzuk eta besteak. Etorkinek, arrazoi ekonomikoek eraginda datozenek batez ere, bizimodua hobetzarren erabakitzen dute leku batetik bestera joatea. Errefuxiatuek, ostera, bizia salbatzeko edo askatasuna ez galtzeko alde egiten dute. Errefuxiatuak, herrialde barneko desplazatuak eta etorkinak, denak nahastu eta modu berean tratatzen dira, gero eta gehiago: mesfidantzaz, eta are gehiago, gorrotoz eta gaitzespenez ere bai.

Emakume errefuxiatuak



Sorlekutik irten behar izan duten pertsonen erdiak emakume helduak eta neskatoak dira. Etxekoan, beraien gobernuen eta, sarri askotan, familia-egitura tradizionalen laguntzarik gabe, emakume horiek babesik gabe egoten dira maiz. Erbestera bidean hainbat ordu egin ondoren, agintarien aldetik jazarpena edo ezaxola jasaten dute eta, sarritan sexu-abusuak ere bai, baita ustez toki segurura iritsi eta gero ere. Mehatxu pertsonal horiei aurre egin eta horrek dakarren estigmatizazio soziala jasateaz gain, emakumeek beste ardura batzuk ere hartu behar izaten dituzte, hau da, beren familien segurtasun

Solidaritatea Sudaneko Hegoaldearekin


- Sudanek **40 milioi biztanle** inguru ditu, eta Afrika osoko herrialderik handiena da. Kolonialismoaren garaitik aurrera, familia etniko eta erlijioso handi bi bereizi behar dira: **arabiar musulmanak** (biztanleriaren %40); iparraldean bizi dira, eta tradizioz botere ekonomikoa eta politikoa kontrolatu izan dituzte. Eta **afrikar kristauak** (biztanleriaren %60); hegoaldean bizi dira, gutxiagotasun egoeran eta iparraldeko bizilagunengandik marjinetuta.

- 1956an independentzia lortu zenetik, Sudango biztanleak **etengabeko gatatzan** bizi izan dira. Iparraldekoen eta hegoaldekoen arteko tira-birak direla

eta, **bi gerra zibil** izan dituzte: 1956-1972an eta 1983-2004an. Azkeneko gerra horretan, bi milioi bizilagun hil ziren, eta beste lau milioik atzerrira alde egin behar izan zuten.

- Iparrak eta hegoak bizi duten etengabeko gatatzak gain, 2003. urtean, milizia arabiarrek, Khartumgo gobernu zentralaren oniritziarekin, garbiketa etnikoa sustatzeko operazio bati ekin zioten mendebaldean (Darfur), eta **gaur egungo giza tragedia handienetariko bat** eragin zuten. Gatatzka honen hasieran etnien arteko arazoa bazegoen ere, bestelako argudioak ere bazeuden, politikoa eta ekonomikoa, hain zuzen ere. Horien artean, hegoaldeko lur emankorrak eta bertako baliabide naturalak lortzeko borroka azpimarratu beharra dago, **petrolio**a batez ere.

- 2005ean lortutako **Bake-hitzarmenean**, Sudan Hegoaldeak autonomia zabala lortu zuen sei urterako, hau da, 2011ko erreferendumean Hegoalderako independentzia erabakiko den ala ez jakin arte. Sudan Hegoaldea 10 estatuk osatzen dute gaur egun, eta estatu horietako bakoitzak bere gobernu eta batzar deszentralizatuak ditu. Sudango hegoaldeak hamabi milioi biztanle ditu guztira.



FAMILIA giroaren bila HERRITIK kanpo

- Sudan Hegoaldean etnia bat baino gehiago daude, 20 tribu baino gehiagotan banatuta, eta, horrek, jakina, zaildu egiten du identitate komun bat lortzea. Eskualde horretako bizi-baldintzak planeta osoko gogorrenak dira: hamar biztanletik zortzik **tokiz aldatu behar izan** dute, 1983tik 2004ra bitartean bizi izandako gatazka armatuaren ondorioz. Biztanleriaren %92 pobreziarik gorrienean bizi da.
- **Emakumeak**, hau da, biztanleen %65, egoera bereziki gogorrean daude: gatazka iraun zuen bitartean, bortxatu eta tratatu txarrak eman zizkieten bando desberdinetako soldaduek; emakume asko saldu eta esklabo gisa erabili zituzten. Etxean gizonik gabe, eta egoera ekonomiko benetan larrian, beraiek egin behar izan zuten etxearen kargu. Horretaz gain, aipatu behar da neskatoentzat oso zaila dela eskolara joatea: eskolara joaten den neska-kopurua mutilen erdia da. Irakasleen artean ere, %14 baino ez dira emakumezkoak.
- Datu horiek guztiek talka egiten dute **lurraldeak berez dituen aberastasunekin**: lur emankorrak eta petrolio-putzuak. Gerran egon arren, Hegoaldeko Sudan etengabe hazi da, urteko %6ko erritmoan hazi ere.



SUDAN HEGOALDEAREKIN ELKARTASUNA

izeneko proiektuaren helburua da Hezkuntzako profesionalak prestatzeko sarea abian jartzea.


- Bi prestakuntza-zentro eraiki, hornitu eta abian jarriko dira: Malakal-en bat, eta Rimenze-n bestea, gatazka gehien zigortu dituen lurraldeetako bitan, hain zuzen ere.
- Prestakuntza horretan tartekatuta egingo dira ekintza presentzialak eta urrutikoak. Azken horietarako, baliabide ugari erabiliko dira: internet, irratia eta inprimakiak.
- Prestakuntza jaso dezakete irakasle izan nahi dutenek edo dagoeneko irakaskuntzan dihardutenek, horien prestakuntza-maila hobetzeko.
- Prestakuntza horretan ingelesa sartzen da, horixe baita Sudan Hegoaldeko curriculum berria garatzeko hizkuntza ofiziala.
- 80 kongregazio erlijiosotik gora daude proiektu horretan laguntzen.

PROIEKTUA





1 JARDUERA



HELBUURUAK

1. Zenbait kontzeptu argitzea: errefuxiatua, barneko desplazatua, herrigabea.
2. Pertsona bat errefuxiatu izatera eramaten duten arrazoiak ezagutzea.
3. Errefuxiatuen eta desplazatuen mapa ezagutzea.



IDEIA NAGUSIAK

1. Gaur egun 35 milioi lagun inguru dira euren etxea utzi behar izan dutenak, bizitzeko leku seguruago baten bila joateko.
2. Errefuxiatuak dira, euren bizia arriskuan ikusita, jaioterria utzi behar dutenak. Jazarpen horren arrazoiak hauek izan daitezke: arraza, erlijioa, talde sozial jakin bateko kide izatea, gatazka armatua...
3. Barneko desplazatuak dira, euren etxetik alde egin behar izan dutenak, honako arrazoiren batengatik: arraza, jazarpena, hondamendi naturala... Pertsona horiek bizilekua aldatzen dute, baina herrialdetik irten gabe.
4. Herrigabeak dira, estatu batek ere herritar gisa hartzen ez dituen pertsonak; beraz, ezin dute ezin gobernuren aldetik inolako eskubiderik jaso (etxebizitza, hezkuntza, osasuna...).
5. Etorrin ekonomikoa da, jatorrizko herrialdea utzi eta bizimodu hobe baten bila doan pertsona. Printzipioz, ez du inolako jazarpenik jasaten eta haren bizia ez dago mehatxupean.
6. Ekialde Hurbilean bizi dira errefuxiatu gehien. Afrikan dago, ordea, desplazatu kopuru handiena.



LAN EGITEKO PROPOSAMENA

1. Ideia-zaparrada bat botako dugu PERTSONA ERREFUXIATUEI buruz.
2. Neska-mutikoei esango diegu, internet bidez, definizio hauek bilatzeko: ERREFUXIATUA – DESPLAZATUA - HERRIGABEA. Asiloari buruzko Hiztegia kontsultatu daiteke (<http://www.cear.es>); CEAREk (Comisión Española de Ayuda al Refugiado) argitaratua. Lortzen duten informazioarekin, Laneko Koadernoko 1. Fitxa beteko dute.
3. Neska-mutikoekin solasean egingo dugu: Zeintzuk dira pertsona batek etxetik ihes egiteko arrazoi nagusiak? Berdinak al dira etorkinak eta errefuxiatuak? Zein da bien arteko aldea?
4. Laneko Koadernoan (1. Fitxa) honako artikulua irakurriko dugu: **Errefuxiatuak: ikusi ez arren, existitzen dira.**
5. Solasaldia neska-mutikoekin. Grafikoen analisia (datu interesgarriak).
6. Ondorioak.



JARDUERA OSAGARRIAK

1. Neska-mutikoak ACNURen **Contra viento y marea** jolasean parte hartzera gonbidatuko ditugu (<http://www.contravientoymarea.org/credit.html>). Jolas oso interesgarria da, errefuxiatuen larrupean jartzeko aukera ematen duena. Gainera, irakasleentzako material egokia da.





1 JARDUERA

LANEKO FITXA

Internet baliatuz,
bilatu honako terminoen definizioa

ERREFUXIATUA

BARNEKO
DESPLAZATUA

HERRIGABEA



Errefuxiatuak

ikusi ez arren, existitzen dira

Gaur egun 35 milioi pertsona inguru daude munduan, egun batetik bestera, euren ondasunak jaso eta jaioterria utzi behar izan dutenak. Errefuxiatuak eta desplazatuak dira. Horietatik % 80 emakumeak eta haurrak dira.

Hauek dira bat-batean etxea utzi behar izatearen arrazoi nagusiak:

1. Gatazka armatuak. Gerrak eragindako izuaren ondorioz, komunitate osoak, euren jaioterria utzi behar izaten dute, gehienetan soinean dutenarekin bakarrik. Gizonezkoak borrokan geratzen dira, eta emakumeek seme-alabekin ihes egiten dute, babesak aurkituko duten lekuren baten bila. Batzuetan herrialdean bertan aurkitzen dute babesak; beste batzuetan, ordea, mugaz haratago joan behar izaten dute.

FAMILIA giroaren bila HERRITIK kanpo

2. Ingurumenaren degradazioa. Lurren gehiegizko ustiapenak eta klima-aldaketaren efektuek desertizazioa eta lehortea eragiten dute. Lurrak gero eta gutxiago ematen du, eta herrietako biztanleek alde egin beharra dute, lursail emankorragoen bila. Munduko Bankuaren esanetan, urtero 10 milioi pertsona inguruk lekuz aldatu behar izaten dute, proiektu handien ondorioz: presak, urbanizazioak edota meatzetako ustiapenak.



3. Arrazoi desberdinengatik jazarpena: politika, arraza, erlijio edo generoa. Zenbait pertsonak euren jaioterria utzi behar izaten dute, ideia politiko edota erlijio jakin bat dela-eta jazarpena jasaten dutelako (adib: kristauak Txinan, Sudanen...). Herrialde batzuetan (islamismo erradikalaren eraginpeko herrialdeetan gehienbat), emakumeek gizonek baino eskubide gutxiago izan ohi dituzte, emakume izate hutsagatik.

Errefuxiatuen kolektiboan ez ditugu etorkin ekonomikoak sartu behar. Izan ere, horiek, euren borondatez uzten dute jaioterria, bizimodu hobea baten bila. Halako batean, jaioterrira itzultzen badira, hango gobernuaren babesa izaten jarraituko dute. Errefuxiatuek jazarpen baten ondorioz utzi behar izaten dute jaioterria, eta ezinezkoa zaie baldintza seguruetan itzultzea, herrialde horretako egoera nabarmen aldatzen ez bada behintzat (adib: bake-akordio iraunkorra, gobernu-aldaketa).



DATU



INTERESGARRIAK

Munduan 100 **errefuxiatu** baino egongo ez balira

41 Ekialde Hurbilean biziko lirateke
 23 Afrikan
 16 Asiako Erdialdean eta Hegoaldean
 7 Asiako Hego Ekialdean
 6 Europan (horien erdiak Balkanetan)
 5 Amerikan (ia gehienak Ipar Amerikan)


Munduan 100 **desplazatu** baino egongo ez balira

51 Afrikan biziko lirateke
 15 Asian
 14 Latinoamerikan (ia denak Kolonbian)
 12 Europan (ia gehienak Balkanetan)
 8 Ekialde Hurbilean

ERREFUXIATUAK



2. JARDUERA



HELBURUAK

1. Ingurumen arazoak direla-eta errefuxiatuta bizi direnen errealitatera gerturatzea.
2. Pertsona horien bizi-baldintzak aztertzea, bai eta etorkizuneko ondorioak ere.



IDEIA NAGUSIAK

1. Munduko pertsona guztiek dute bizitzeko etxea edukitzeko eskubidea. Hala ere, batzuek ez dute eskubide horretaz baliatzeko modurik eta errefuxiatu-esparruetan bizi behar dute.
2. Ingurumena dela-eta errefuxiatuta bizi direnek, beste herrialde batera emigratu behar izan dute, euren jaioterrian ingurumena hondatuta dagoelako. Horren arrazoiak naturalak edo gizakiak eragindakoak izan daitezke. Klima-aldaketak, batetik, euriteak eta uholdeak areagotzen ditu eta, bestetik, urtero errepikatzen diren lehortek. Itsasoaren maila-igoerak ere nahitaezko migrazioak eragingo ditu.
3. Gaur egun dauden errefuxiatuen %60k ingurumen arrazoiengatik errefuxiatu behar izan dute.
4. Hutsune juridiko bat dago pertsona horiekiko; izan ere, kasu horiek Zuzenbide Internazionalak babesten dituen kategorietatik kanpo daude.
5. Errefuxiatu-esparruetako bizimodua oso gogorra da, bai bertako bizi-baldintza fisikoengatik (kanpin dendan, urik gabe, baliabide gutxirekin...), bai segurtasun-falta eta ziurgabetasunagatik (ez dakite noiz arte bizi beharko duten egoera horretan, nora joango diren gero, nola...).
6. Errefuxiatu-esparruetan bizi diren neska-mutikoek gabezia handiak izaten dituzte haurtzaroan: elikaduran, osasunean, hezkuntzan... Horrek guztiak ondorio larriak izango ditu etorkizunean.
7. Errefuxiatuentzako Nazio Batuen agentzia da ACNUR. Nazio Batuen Batzordeak eratu zuen 1950ean. Agentzia horretaz gain, badira errefuxiatuen alde lan egiten duten bestelako erakundeak ere: (Comisión Española de Ayuda al Refugiado), Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua...



LAN EGITEKO PROPOSAMENA

1. Laneko Koadernoan, 2. Fitxan, **Erronka berria: Ingurumen errefuxiatuak** izeneko artikulua irakurriko dugu.
2. Neska-mutikoekin solasean egingo dugu: Zer esan nahi dugu "ingurumen errefuxiatuak" terminoa erabiltzen dugunean? Zer dela-eta egin behar izaten dute alde kokaleku jakin batetik? Zer-nolako interesak daude egoera horien atzean? Pertsona horiei errefuxiatu izaera ematen zaie?
3. Neska-mutikoekin solasean egingo dugu: Zer da errefuxiatu-esparrua? Nola bizi dira? Zer-nolako gabeziak dituzte?...
4. Gai honi buruzko hiru bideo labur erakutsiko ditugu (blogean daude): **Sudan, 5 milioi desplazatu – Jesus Vázquez-ek errefuxiatu baten bizimodua azaltzen du – Angelina Jolie eta errefuxiatuekiko duen konpromisoa.**
5. Neska-mutikoekin solasean egingo dugu: Zer iruditu zaigu deigarria? Zer harrigarria? Zer falta zaie bizitza duina izateko? Bizi al daiteke luzaroan halako baldintzetan?...
6. Bideoetan ACNURez aipatzen da. Zer dakigu erakunde horretaz? Zer egiten du? Ezagutzen al dugu errefuxiatuen alde lan egiten duen beste erakunderik? CEAR eta Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuari buruzko informazioa bilatzeko esango diegu neska-mutikoei. Lortutako informazioa partekatuko dugu.
7. Ondorioak.





Erronka berria



Gatazka armatuek eta indarkeriak eraginda, herritarren joan-etorri masiboak izaten dira munduko leku askotan; horrez gain, badira nahitaezko migrazioak eragiten dituzten beste arrazoi batzuk: pobrezia eta ingurumena hondatzea. Ingurumena geroz eta narriatuago dago, gizakiaren jarduera ekonomikoagatik eta naturaren ustiapen basatiagatik. Klima-aldaketak, gainera, areagotu egin du hori guztia. Hori dela eta, fenomeno berri bat sortu da nazioarte mailan, ingurumen-errefuxiatuena alegia. Hala ere, oraindik ez da ezaguna iritzi publikoarentzat, ezta nazioarteko erakundeentzat ere. Fenomeno horren tamainak erronka berria ekarri dio nazioarteko komunitateari, baita jarduera humanitarioetan diharduten gizarte zibileko erakundeei ere; hots, ekingiza humanitarioetan, ingurumenaren babesean, asiloa eta babesa ematen, nazioarteko migrazioak eta garapenerako lankidetzan ari direnei.



Ingurumenaren narriadurak gerrateek baino nahitaezko desplazamendu gehiago eragin ditu; hala baieztatu dute Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak eta beste zenbait erakundek egindako azterlanetan. Nazio Batuen Errefuxiatuentzako Goi Komisarioak (ACNUR) komunikabideei oraintsu eginiko deklarazioetan baieztatu duenez, pobrezia eta ingurumenaren hondamena dira, gatazka armatuekin batera, munduan desplazamendu gehien eragiten duten faktore nagusiak.

Egindako kalkuluen arabera, gaur egungo errefuxiatuen % 60k ingurumen-arraziengatik alde egin behar izan dute, eta 2010ean, kopuru hori bikoiztu egingo dela aurreikusitua da. Baliteke, 2010ean, ingurumen-narriaduraren ondorioz, 50 milioi lagun inguru (pentsa dezagun, Espainiako estatuan, 46 milioi lagun baino zertxobait gehiago bizi direla) euren sorterrira utzi behar izatea. 50 milioi lagun horien erdiak Saharatik hegoaldera bizi diren afrikarrak izango dira.

Etorkizuneko aurreikuspenak alde batera utzita ere, gaur egun esku artean ditugun datuak benetan kezkatzeko modukoak dira. Ingurumena hondatzearen ondorioz, urtero 10 milioi lagun inguru desplazatzen dira. Klima-aldaketa benetan gertatzen ari dela onartzen badugu, etorkizunean egoerak okerrera egingo du eta kopuru hori handiagoa izango da.




FAMILIA giroaren bila HERRITIK kanpo

Hala ere, orain arte, Ingurumenerako Nazio Batuen Programak baino ez du jaso Ingurumen Errefuxiatuaren figura. Gainera, hondamendi naturalek eragindako kasuetara mugatu du; esaterako, lurrikarak, urakanak edo tsunamiak, edota gizakiak eragindako hondamendi ekologikoak (Chernobil) nahiz kimikoak (Indiako Bhopal-en gertaturikoa).

Errealitate berri horri aurre egiteko, nazioarteko komunitateak baliabide juridiko berriak behar ditu nahitaez, pobrezia eta ingurumenaren narriadurak eragindako desplazamendu masiboak saihesteko.

Ingurumenarekin zerikusia duten desplazamenduek arrazoi bat baino gehiago izan dezakete. Aipatu hondamendiei azpiegitura-proiektu handiak eta agroindustria gehitu behar zaizkie, honako hauek batez ere: monolaborantza erasokorra, bio-erregaiak eta transgenikoak, edota baliabide naturalen gehiegizko utsiapena, hala itsasokoak nola lurrekoak. Paradigmatikoa da, esaterako, Asiako Aral Itsasoaren lehortzea, kotoiaren ekoizpen intentsiboak eraginda, beste arrazoi batzuen artean. Gertaera hori XX mendeko hondamendi izugarrienen artean sartu du Ingurumenerako Nazio Batuen Programak.

Ingurumen arrazoia direla eta desplazatu beharra izaten duten asko eta asko azpiegitura handien hedapenak eragindakoak izaten dira; azpiegitura horiek, izan ere, ez dituzte kontuan hartzen ez ingurumeneko inpaktuak, ez tokiko biztanleen eskubideak. Munduko Bankuak egindako kalkuluen arabera, urtean 10 milioi lagun inguru desplazatzen dira, nahitaez, proiektu handien ondorioz: presak, urbanizazioak edo mineralak nahiz hidrokarburoak ateratzeko industriak. Niger ibaiaren



Delta dugu mota horretako industria-jarduerak (petrolio, kasu honetan) ingurumenean zein gizartean eragiten duten kaltearen adibide argienetako bat. Delta guztian zehar gertaturiko petrolio-isuriek nabarmen kutsatu dituzte bertako ibaiak nahiz laborantzarako lurak; horren ondorioz, herriek ez dute edateko urik eta ezin dute arrantzan egin edo nekazaritzan jardun. Gainera, gasa erretzearen ondorioz osasun-arazoak izaten ari dira inguruko herrietan. Deltako herritarrek erakunde bat eratu dute dagozkien eskubideak errebindikatu eta industrietik lortutako mozkinetan parte-hartze handiagoa eskatzeko. Horren aurrean, errepresio militar izugarria jaso dute, eta 1995az goerotik, dozenaka dira hildakoak eta exiliatuak.

Goian azaldutako fenomeno guztiak, hau da, ingurumenekoak eta sozialak, areagotu egingo dira klima-aldaketaren ondorioz. Lurra berotzeak dakarren efekturik nabarmenetako bat itsasoaren maila igotzea da. Arazo hori dela-eta, arrisku larrian daude Polinesiako 22 estatu txiki, Ozeano Barean. Tuvula Irla izan daiteke ur azpian desagertuko den lehenengo Estatu; hori horrela, bertako 12.000 biztanleek etxe bila hasi beharko dute. Zeelanda Berriak Tuvula irlako herritarrak hartzeko hitzarmena sinatu du dagoeneko, eta urtean 75 errefuxiatu onartuko ditu. Kasu horrek fenomeno berri baten aurrean jartzen gaitu; izan ere, nahitaezko desplazamendua baino haratago, pertsona horiek herririk gabe geratuko dira, euren Estatu desagertu egingo baita.



3. JARDUERA



HELBURUAK

1. Sudango errealitatean gehiago sakontzea, horrelako gatazka armatu luzeak eragin dituen ondorioetan arreta jarritz.
2. Sudan Hegoaldearekiko dagoen Solidaritate proiektua ezagutu eta horren inguruko lankidetzaz sustatzea, lortu nahi diren helburuak bete daitezzen.



IDEIA NAGUSIAK

1. Afrikako herrialderik zabalena da Sudan. Independentzia lortu zuenetik (1956) etengabeko gatazka bizi izan du iparraldearen (islamikoa) eta hegoaldearen (kristaua) artean. Ipar eta hegoaldearen arteko gatazka horrez gain, 2003an, milizia arabiarrek garbiketa etnikoari ekin zioten mendebaldean; mundu izan den tragedia humanitario handienetarikoa eragin zuen horrek.
2. Gerra bukatu denean, batzuk etxera itzultzeko hasi dira. Etxera itzuli dira, baina dena aurkitu dute suntsituta; ez dago eskolarik, ez ospitalerik.
3. Eskolak ez ezik, irakasleak ere falta dira. Irakasle batzuek alde egin zuten eta oraindik ez dira itzuli; beste asko gerran hil ziren.
4. Sudango haurrek irakasleak behar dituzte. Beharrezkoa da irakasle izango diren pertsonen prestakuntza ematea. Hori da "Sudan Hegoaldearekin Solidaritatea" proiektuaren helburua.
5. Europak bizi duen krisi ekonomikoa larria da, bai; baina are larriagoa da Sudanek bizi duena. Kanpaina hau aukera ezin hobea da gure ikuspegia zabaltzeko eta gu baino gehiago sufritzen ari diren herrialdeei begiratzeko, hau da, haiek bizi duten egoeraz jabetu eta solidarioak izateko.




LAN EGITEKO PROPOSAMENA

1. Bilatu dezagun mapan non dagoen Sudan. Neska-mutilek Laneko Koadernoan (3. Fitxa) eskaturiko informazioa bilatuko dute. Horretarako internet erabili dezakete. Lortutako informazio guztia bateratu egingo dugu.
2. Sudanek azken urteotan bizi izandako gatazka armatuak ikertzeko aginduko diegu neska-mutilei (datak, arrazoiak), baita horien guztien ondorioak ere (errefuxiatutako pertsona-kopurua, horien destinoa). Lortutako informazio guztia bateratu egingo dugu.
3. Neska-mutikoei gonbit egingo diegu "Sudan hegoaldearekin Solidaritatea" proiektuaz hitz egingo duen pertsona baten testigantza entzun dezaten. Behin aurkezpena eginda, harekin hitz egiteko aukera izango dugu, bai proiektuaz, bai Sudanek bizi duen errealitateaz.
4. Neska-mutilekin solas egingo dugu: Zer balorazio egiten dugu proiektuaren inguruan? Beharrezkoa al da? Errefuxiatuen beharrezkoei erantzuten die? Sudan Hegoaldearen garapenari laguntzen al dio horrek?
5. Proiektuan parte hartzeko dauden moduak aztertuko ditugu neska-mutikoekin: norberaren poltsikotik dirua jartzea, dirua lortzeko ekintzak antolatzea, proiektua ezagutzera ematea...Konpromiso horiek ahaztu ez daitezzen, horri guztiari jarraipena egiteko bi boluntario aukeratuko dira.
6. Ondorioak.





GEZI BATEN BIDEZ, KOKATU <u>SUDAN</u>	OSATU DATU HAUEK SUDANI BURUZ	
	HIRIBURUA	
	BIZTANLE KOPURUA	
	BERE ONDOAN DAUDEN HERRIALDEAK	
	HIZKUNTZA OFIZIALAK	
	GIZA GARAPEN INDIZEA (IDH)	
	GAURKO GOBERNU ERA	

BIZI IZANDAKO GUDEI BURUZKO INFORMAZIOA

Empty space for notes or information related to the Sudan conflict.





4. JARDUERA

HELBURUAK



1. Kanpaina bizi izandakoa ospatzea, fedetik abiatuta.
2. Jainkoaren Hitzean aurkitzea solidario izateko eta neba-arreba gisa bizitzeko deia, Aita bakar baten seme-alaba gisa.

OSPATZEKO PROPOSAMENA



1. Girotzea. Kaperaren erdian Jesusen irudi bat jarriko dugu, egoera latzak islatzen dituzten irudi edo gauzez inguratuta: gosea, biluztasuna, gaixotasuna, kartzela, egarria...(Azken Judizioko testuan agertzen diren egoerak).
2. Harrera - Motibazioa. Kanpaina honen amaieran, Jesusek berarekin egotera gonbidatzen gaitu. Bere etxeko atea ireki, kanpin dendako sarrera ireki, eta gure bihotzak zabaltzeko gonbita egiten digu. Aste hauetan, Sudango errealitatearen bidez hitz egin digu Jainkoak, gizakien sufrimenduaren aurrean ez dagoelako sorgor, barrenak hunkitzen zaizkion Jainkoa delako. Ospakizun honetan haren Hitzaren entzun nahi dugu, gu guztiontzat erronka-konpromisoa ez ezik indarra ere badelako.
3. Abestia.
4. Denon arteko otoitza. Bat-bateko otoitzak esan edo denok batera egin dezakegu otoitz (21-23 orrialdeak)
5. Ebanjelioa: Mateo 25, 31-40.
6. Hitzaren Oihartzuna.
 - *Gose nintzen, egarri nintzen, atzerritarra nintzen...* Zoritxarrez, Kristautasunak 2.000 urte bete baditu ere, Jainkoaren Erreinua ez da gauzatu, eta gure munduan, gehiengoa dira sufritzen dutenak (gosea, egarria, gaixotasuna...). Konturatzen gara errealitate horretaz? Edo geure buruari, geure arazoei begira gaude bakarrik? Kanpaina honen bidez, seguru begirada apur bat altxatzeko aukera izan dugula.


ERREFUXIATUAK

- *Jaten eman zenidaten, edaten eman zenidaten, zuen artean hartu ninduzuen...* Jainkoari eskerrak, mundu honetan dena ez da itzala. Badira pertsona sentiberak, solidarioak, konpromisodunak... sufritzen dauden pertsonengana gerturatzeko direnak. Talde horretakoak al gara? Ziur kanpainak iraun duen bitartean horrelako jokabideak izan ditugula.
- *Nire neba-arreba txiki hauetako bati egin diozuena, neuri egin didazue.* Jainkoa sufritzen duen pertsonarengan dago. Jainkoarengan sinesteak esan nahi du, pertsona ahul eta baztertuen ondoan egotea. Horrela bizitzeak poza ematen du; hala frogatu dugu gure solidaritate-esperientzia txikien bidez. Hasi dugun bide horretatik jarraitu nahi al dugu?

7. Otoitzak - Keinua: Entzun dugun hitza; orain bat-bateko otoitza egiteko unea da. Otoitz egin ondoren, bakoitzak Jesusen irudia estaltzen duten irudi edo objektuak jaso ditzake. Haren hitzak ekarriko ditugu gogora: Nire neba-arreba hauetako bati egin diozuena...

8. Aita gurea.

9. Agurra.



FAMILIA giroaren bila HERRITIK kanpo



OTORITZA

Partekatu, mundu guztia bizi dadin,
hori da, Jesus, gure nahia,
bide hori erakusten diguzu,
gizateria berria sortu dadin.
Biziaren Jauna, lagundu ikusten
gure ogiak eta arrainak;
huskeria dira agian
baina besteekin partekatuz gero,
senide arteko solidaritatearen hazi izango dira.
Zabaldu, Jauna, gure eskuak
gure ondasunak, gure denbora eta dohainak
partekatu ditzagun,
anaitasunezko mundua sortu dezagun.
Erakutsi zure Erreinua eraikitzen.



Ahalegin txiki BAT
asko izan daiteke beste pertsonen bizitzan.

BI irribarre sortu daitezke
elkarri laguntza desinteresatua emanda.

HIRU asmo on
konpromisozko hiru dohaintza baino hobekak dira.

Zuk daukazuaren $\frac{1}{4}$
dena da ezer ez dutenentzat.
zure eskuko BOST atzamarrek
buruan duzun ideia batek baino gehiago ematen dute.

SEI kolorek bizia ematen diote
dena zuri-beltzean ikusten duenari.

Solidaritatea
asteko ZAZPI egunetarako da.

Gosearen ZORTZia (jatorrizkoa: VUIT, huit = hutsa,
katalanez)

arrantzarako kanaberaz betetzen da, ez arrainez.

Guztion esku dago
mundu BERRIA egitea, aldatzen bagara.


HAMAR esaldi horiek lagunduko digute
JAINKOAREN ERREINUA eraikitzen.

ERREFUXIATUAK

Kexatu egiten gara
jatekoa hotz dagoelako edo itxura eskasa duelako,
baina beste batzuek ez dute jatekorik ere .
Guk markako arropak janzten ditugu,
eta beste batzuek, bigarren eskukoak.
Guk ez daukagu boluntario-lanak egiteko astirik;
beste batzuek, ordea, aparteko orduak sartu behar dituzte
etxera ogia eramateko.
Behar duguna baino gehiago gastatzen dugu,
beste batzuek, aldiz, ordu asko egin behar dute lan
gutxieneko soldata irabazteko.
Eskolan gauzak falta direlako kexatzen gara,
hirugarren munduan, ordea, ez dute eskolarik ere.
Eskoletarako irakasle gehiago eskatzen dugu, arrazoiz,
baina herrialde batzuetan ez dute irakaslerik.



Maria, zu zara gure bizitzarako eredu.
Emaguzu arnasa gure nekaldietan.
Jaso gaitzazu erortzen garenean.
Izan zaitetz gure lanean gidari.
Eman adorea arrakasta dugunean.
Kontsola gaitzazu huts egiten dugunean.
Lagundu gu garena eta daukaguna partekatzen.
Lagundu sufritzen dutenak senidetzat hartzen.
Esperantzaren Ama, gure bizitza
poz-iturri izan dadila, mundu atsekabetu eta bidegabe honetan.



Aita gurea, zeruetan zaudena,
seme-alaben artean ogia banatzen duzuna;
erakutsi gure artean gauza bera egiten,
etor bedi gugana zure Erreinua
eta mundu berria sortu
gure gosea ase dezan
gure bizitza pozez bete dezan.
Munduan bada ogirik
dagoen gosea kentzeko lain,
Etorriko ahal da, Aita, Jesusek bezala banatzen dakienik.
Amén.



Oración de un niño refugiado

VÍCTOR ROJAS

Señor

Yo soy un niño cansado de caminar
tengo miedo de los caminos
y de las sombras de la noche

He dormido sobre almohadas de piedra
puestos los ojos en las estrellas

Acaso, Señor, tú rondas
de estrella en estrella
como un niño refugiado
y todos te miran de reojo
y te dan puntapiés
y te piden papeles de identificación
y te alejan de tu osito de felpa
y tu tractorcito de madera

Ojalá que no...

Las estrellas tiritan, Señor
y yo quiero creer que son tus ojos
que tienen ganas de despertar

El cuerpo de mi padre
quedó en el jardín
junto al árbol de cerezas

Madre llora y acaricia mis cabellos ondulados
y aprieta mis manos y me cubre con su cuerpo

Ya nada saben mis ojos
sólo de la llama que todo lo abraza

Caminamos
caminamos
caminamos



y el fuego nos persigue

Ya no hay lugar en tu tierra, Señor

Los caminos están sembrados
de lágrimas y minas
y allá donde los caminos terminan
dicen que no hay lugar
para niños con cara de espantapájaros

Estoy cansado, Señor
he olvidado los cuentos
de piratas y ballenas azules
que mi abuelo nos contó
en tiempos de antes de la guerra

Señor
cuando mi madre y yo
lleguemos al final del camino
dile a la gente que mis pies son ampollas
a punto de reventar

Diles
que soy pequeño
y la Tierra es grande

Diles
que yo quiero volver a jugar
a la gallina ciega
y al puente está quebrado
con qué lo curaremos
con cáscaras de huevo, con cáscaras de huevo

Diles que es mentira que Tú has dibujado
sobre la Tierra
líneas que separan a la gente





Sudan haustear dago

<http://blogs.periodistadigital.com/enclavedeafrica> (09 maiatza)

Ez dago gauza okerragorik intentsitate apaleko gatazkak baino. Ez dute komunikabideen interesa bereganatzen, ez dituzte teletipoak betetzen eta, halako gauzak aipatzen ez badira, milaka kaltetu ahaztuta gelditzen dira, "ez dutelako gaurkotasunik".

Halako zerbait ari da gertatzen Sudanen. Herrialde horretako Hego eta Mendebaldean (Darfur) izandako gatazka armatuek arreta bereganatu zuten tarteka; orain, ordea, garrantzi gutxiko albisteen artean zokoratu dira. Darfurren, Chad-ekin dagoen tirabira geroz eta gordinagoa da, eta Sudango lurraldea erasotzera iritsi dira, hegazkinez. Ezer gutxi dakigu errefuxiatu-esparruetan bizi den egoeraz, ordu gutxi batzuen buruan bertan ziren zenbait erakunde humanitariok halabeharrez handik irten behar izan zuten eta. Estatu Batuek lurralde horretan bizi den egoera larria islatzen duen txostena egin dute, baina bertako gobernu zentralak "gezur hutsa" dela esan du. Betiko kontua.

Hegoaldean, ganadua lapurtzeko razziak –eskualdean oso ohikoak, bestalde- oso bortitzak izan dira aurten; izan ere, hildakoen kopurua iazkoa baino dezente handiagoa da, eta ezohiko metodoak eta armak erabili dituzte. Azken asteetan, urrunago joan gabe, hainbat gatazka antzeman dira; horietako batzuetan, gainera, neurritz kanpoko indarkeria erabili dute eta, ondorioz, uste da, Hegoaldeko lurraldea kinka larrian jarri nahi duen ezkutuko esku bat-edo dagoela horren guztiaren atzean. Gogoratu beharra dago, gainera, otsailean hauteskundeak izango direla eta 2011n, berriz, autodeterminaziorako erreferenduma. Estrategiaren bat izatekotan, beraz, arrakasta izaten ari dela esan genezake, segurtasunik eza aise hedatu baita herrialdearen hego partean. Eskualdeko beste puntu aipagarri bat Hego mendebaldekoa da. Orain arte, nolabaiteko egonkortasuna zegoen bertan, inolako talde armaturik gabe. Ugandako Jaunaren Liberazio Armada deritzon gerrilla Kongoko Errepublikak Demokratikorantz mugitu da (saraski izugarriak egin dituzte bertan iragan Gabonetan), eta Sudaneko Hegoaldean ere sartu dira, noiz edo noiz, ordura arte segurua eta egonkorra zen lurraldean izua zabalduz.

Eta hori guztia gutxi balitz, Errepublikako presidente jaunak Ahmed Haroun izendatu du Kordofán Hegoaldeko gobernadore (Nuba Mendi ospetsuak dauden lurraldea); pertsona hori, esan beharra dago, Hagako Nazioarteko Justizia Gorteak epaitu nahi du, gizateriaren kontrako 50 krimenetik gora egotzita, Darfur-en 2003-2004 urteetan egindako sarraskiengatik. Erregimeneko pertsona maltzurrenetakoa da, beraz. Guztiok dakigu izendapen hori funtsezko arrazoi estrategikoetan oinarrituta dagoela: Nuba Mendietako biztanleek iruzur egin dietela uste dute, bake-akordio horren bidez ez baitie ia aukerarik emango Iparraldetik askatzeko; bestalde, lurralde horretan Darfur-ekoak bezalako talde armatuak agertu izanak artega jarri du presidentea eta, ondorioz, pertsona anker eta errukigabe bat jarri du bertako agintean, helburu estrategikoak lortzearren edozer gauza egiteko prest dagoena, alegia.

Herrialdearen egoera orokorra guztiz kezagarria da, eta badirudi epe luzera gatazka odoltsu eta krudelak bizi izango direla lurralde hartan. Izan ere, egoera erabat ezegonkorra bizi dute, eta une honetan leku ezin aproposagoa da arma trafikatzaille eta antzekoentzat, gerta litekeenaren aurrean pozarren baitaude.



Emakume errefuxiatuak arriskuan

Darfur-eko emakume eta neskato errefuxiatuak etengabeko arrisku larrian daude: bortxatuak izan daitezke edo beste indarkeria batzuk sufritu, baita errefuxiatu-esparruan bertan ere. NBERen segurtasun-indarrak bertan dira, baina Amnistia Internacional erakundeak oraintsu ateratu duen txosten baten esanetan, hori ez da nahikoa hango segurtasuna bermatzeko.

Erakunde horren txostenean jasotzen denez, errefuxiatu-esparruetako emakume nahiz neskatoek bortxaketak eta bestelako indarkeria-ekintzak jasan dituzte, bai inguruetakoz biztanleen eskutik, bai Chad-eko Armada Nazionaleko kideen eskutik.

Emakume horiek Darfur-etik ihes egin zuten, nazioarteko komunitateak eta Chad-eko agintariek segurtasuna eta babes emango zirela. Babes hori lortzea, baina, oso zaila izan da, eta erasoak jasaten dituzte, behin eta berriz.

Txostenean jasotzen denez, errefuxiatuta dauden neskatoek irakasleen aldetik eta jasaten dute sexu jazarpena, errefuxiatu-esparruetako eskoletan bertan. Irakasle horiek nota txarrak jartzearekin mehatxatzen dituzte neskatoak, eurekin sexu-harremanik izan nahi ez badute. Horregatik, asko dira eskoletara joateari utzi diotenak.

Gauza jakina da Chad ekialdeko errefuxiatu-esparruetan dauden emakumeak bortxaketak jasateko arriskuan egoten direla, egurretan edota ur bila joaten diren bakoitzean. Askok ez dakite, ordea, errefuxiatu-esparruak ere ez direla batere seguruak emakume horientzat. Bortxaketak edota bestelako indarkeria-ekintzak jasateko arriskuan bizi dira han ere, senideen eskutik, gainerako errefuxiatuen eskutik, edota erakunde humanitarioetako kideen eskutik, nahiz eta azken horien egitekoa laguntza eta babes ematea izan.

Chad ekialdean emakumeen eta neskatoen kontrako bortxaketa eta indarkeria-ekintzak gauzatzen dituztenak oso gutxitan eramaten dituzte epaileen aurrera, ezta biktimek berek bortxaketak nahiz bestelako erasoak bertako agintarien aurrean edo esparruetako arduradunen aurrean salatzen dituztenean ere.

Gatazkak ebazteko eta bortxaketak nahiz indarkeria-ekintzak konpontzeko, akordioak "negoziatzen" dira. Metodo tradizionala da hori, eta zigorgabetasuna sustatu eta indarkeria egoerak areagotzeko baino ez du balio.

Amnistia Internacional erakundeak baieztatu duenez, ezinezkoa da errefuxiatu-esparruetan nahiz esparruetik kanpo bortxatutako emakume eta neskatoen kopuru zehatza jakitea; izan ere, oso gutxitan salatzen dira horrelako kasuak, estigmatizatuak izango diren beldur baitira emakumeak, baita euren senideen aldetik ere, horrek dakarren trauma handia izaten baita.

Amnistia Internacional-ek eskaera egin zion Chad-eko gobernuari eta nazioarteko komunitateari, bortxaketak eta bestelako indarkeria-ekintzen aurrean neurri eraginkorrak hartu zituzten, modu sistematikoan gertatzen baitira Darfur-eko errefuxiatu-esparruetan dauden emakume eta neskatoen aurka.

Chad ekialdean Darfur-eko 260.000 errefuxiatu inguru bizi dira, emakumeak eta haurrak gehienbat, eta gehienek bost urtetik gora daramatzate bertan. Errefuxiatu horiek 12 esparru desberdinetan sakabanatuta bizi dira, Chad eta Darfur arteko mugan zehar.

Azken sei urteetan, 142.000tik gora dira Sudango Darfur herrialdeetik ihes egin duten emakume eta haurrak, bortxaketak eta bestelako giza eskubideen urraketak atzean utzi nahian, eta segurtasun bila.



Laguntzailea:

bbk



San Francisco, 12A-3º
48003- BILBAO

<http://procladeyanapay09-10.nireblog.com/>